

Zazpi pertsona atxilotu dituzte Rodriguez Menendezekin erasoarekin lotura dutelakoan

Kontu-garbiketetan aritzen den talde bateko kideak dira, poliziaren ustez

Efe/ Madril

Espainiako Polizia Nazionalak zazpi pertsona atxilotu zituen atzo goizean Madrilén Emilio Rodríguez Menéndez abokatuaren tiroketarekin zerikusia zutelakoan. Zortzigarren pertsona bat ere identifikatu zuen poliziak. Bitartean, abokatuak onera egin zuen atzo, nahiz eta bere osasun egoera larria izaten jarraitzen zuen.

ITURRI POLIZIALEK atzo jakinarazi zuten, atxilotutakoak bost gizon eta bi emakume dira, eta horien artean dago ustez tiro egin zion pertsona. Horrek, gainera, zauri bat du ipurmasailean. Baliteke abokatuaren auto gidariaren pistolak egin izatea zauria; izan ere, gidariak eraso saihesteko pistola erabili zuen.

Emilio Rodríguez Menéndez abokatuak tiro bat jaso zuen joan zen ostegunean etxera zihoala, Madrilgo Las Rozas herrian. Iturri polizialek diotenez, beste delitu batzuk egiteagatik ikertu zaie atxilotutako pertsonari, kontu-garbiketetan aritzen den talde bat osatzen duten susmoa baitu poliziak.

Atxilotutakoak talde berean jarduten zuten gaizkile arruntak direla esan zuen poliziak, eta egunean osoan galdeketa egin zieten. Guz-



Emilio Rodríguez Menéndez abokatuak.

tiek aurrekari polizialak dituzte, eta beste delitu batzuk egiteagatik ikertuak izan dira.

Pertsona bat identifikatua

Era berean, Polizia Nazionalak zortzigarren pertsona bat identifikatu zuen atzo. Baliteke motoan zihoan bigarren pertsona izatea. Guardia Zibilaren bertsioaren arabera, moto horretatik egin zioten tiro abokatuari. Identifikatutako pertsona zazpi atxi-

lotutakoen taldeko kidea da. Lerro hauek idazterakoan artean ez zuten atxilotu, baina urrango orduetan egitea espero zuen poliziak.

Gertakariak jazo ziren lekuan, auto gidariaren arma-arenak ziren 9 milimetro "parabellum" markako zortzi balazorro aurkitu zituen Guardia Zibilak. abokatuak zauritu zuen tiroa errebolber batetik irten zen, antza; izan ere, eraso izan zen tokian ez zen balazorrorik aurkitu, arma mota horrek danborran uzten baititu balazorroak.

Medikuek atzo jakinarazi zuten, abokatuak onera egin zuen, nahiz eta bere egoera larria izaten jarraitzen zuen. Madrilgo Ospitale Klinikoko iturriek zaurituak Zainketa Berezietako Unitatean jarraitzen zuela adierazi zuten, bere onera eta aireztatzeko sistemaz lagunduta.

Erasoan abokatuari esku-biko birika zulatu eta goiko aldeko zaina urratu zioten. Horrela, ebakuntza egin behar izan zioten, bala ateratzeko eta zauri larriagoak egin ez ziezaien.

Nafarroako Entzutegiak «Otanokasua» martxan jartzeko agindu du

■ Inplikatuena Suitzako kontuak ikertzeko eskatu dio Alejandro epaileari

Erredakzioa / Donostia

NAFARROAKO Auzitegi Probintzialak Otanokasua martxan jar dezan eta HBk proposaturiko diligentiak onar ditzan agindu dio Soledad Alejandre epaileari, Gara egunkariak atzo argitaratu zuenez. Zortzi hilabeteetan bigarren aldia da Entzutegi Probintzialak HBk egin dako salaketari arrazoa ematen diona.

Oraingo honetan, Suitzara erreguzko batzordea bidal dezan eskatzen dio autoak. Han bankuko bi kontu ikertu beharko ditu aipatu batzordeak: Gabriel Urralbururen izenean dagoen Union Privée de Ginebrako 700357BFE kontua eta jabe ezezaguna duen 727752JE kontua. Azken honek, inplikatuena deusotekin isuri ekonomikoak ditu. Era berean, Suitzako epaileek Brigit Jaqueline Aubert ikertu beharko dute. Javier Otano eta bere emazteak Auberti diru fondoaren ardura eman zioten eta azken kontuko 200 milioi pezetak nora joan ziren argi dezake.

Bestalde, ostiralean bete ziren hiru urte Javier Otanok Nafarroako presidentea ohiak dimititu zuela, Suitzako kontu baten jabe zela jakin zenean.

Euskal Errepublikaren alde mila agiri izenpetu dituzte

■ Juan Carlos I Espainiako Erregeari helarazi dizkio Autodeterminazioaren Biltzarrak

F.I. / Gasteiz

EUSKAL Errepublika aldarrikatuz 1.000 agiri izenpetu dituzte beste hainbeste herri-tarrek eta Espainiako Errege Juan Carlos Iari helaraziko dizkio Autodeterminazioaren Biltzarrak. Atzo Gasteizen Gobernuak duen ordezkari-tzara eraman zituzten eta hango erroldan sartu zituzten Zarzuolako jauregira eraman dituzten.

Autodeterminazioaren Biltzarreko kideek, sorgin mozo-

rroz jantzita, protesta egin nahi dute horrela, eta Erregeari jakinarazi diote ez dutela bere «morroiak» izan nahi. Izenpetu duten agiriak, eta Erregeak jasoko duenak honela dio: «Espainiar guda-lostearen burua zaren neurrian, Estatuaren ordezkari gisa, herrien eta pertsonen askatasunaren alde zure subditoa izateari uko egiten diodala jakinarazten dizut. Beraz, zure morroien zerrendatik ken nazazula exijitzen dizut».



Euskal Errepublikaren aldeko agiriak Gobernuaren Gasteizko ordezkari-tzara aurkeztu zituzten.